



Oihane  
Agirrebeitia  
Martinez

**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.**

**Balioa izango duen diskurso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

## **Oihane Agirrebeitia**

### **2024.6.5 Donostia**

Arratsalde on Donosti! Alderdikide eta alderdizaleok! Arratsalde on! Zoragarria da berriro ere Donostian izatea. Atzo bertan Martutene eta Loiolan izan ginen, donostiarrek duzuen eta izango duzuen tren zerbitzu ona goraipatzen. Gainera, gaurkoa nire azkenaurreko mitina da kampaina honetan, bihar debate batera noalako Madrilera. Azken txanpa da hau. Ez dugu aukerarik galdu behar jendeari igandean bozkatzearen garrantziaz ohartarazteko. Eta indartsu nago. Gogotsu. Dena emateko prest eta datozen bost urteetan Bruselan zuen ahotsa, euskaldunen ahotsa izateko prest!

Permitidme que empiece este mitin hablando del medioambiente. Hoy, 5 de junio, es el día mundial del medioambiente. Este año, está dedicado a la desertificación. Grano a grano, la arena avanza y la sequía con ella. Según Naciones Unidas, actualmente el 40% de la población convive con este problema. En nuestra mano está parar este reloj. Está en nuestra mano cumplir todos sus compromisos para restaurar las tierras y los ecosistemas degradados. La inacción nos puede salir muy cara. Nosotras y nosotros somos conscientes de la importancia de preservar nuestro medio ambiente para asegurar un futuro para todas y todos. Y como Partido Nacionalista Vasco tenemos propuestas en nuestro programa electoral; porque sí, nosotras y nosotros sí tenemos programa y propuestas. En materia medioambiental, más concretamente:

- Reformar las normas de contratación pública de la Unión para que incorporen con plena claridad consideraciones ambientales y sociales entre los factores a valorar para realizar una adjudicación.
- Promover la investigación, innovación y generación de conocimiento y formación en nuevas profesiones medioambientales.
- Proteger las producciones europeas que cumplen nuestros estándares sociales y ambientales de la competencia desleal de países terceros.
- La extensión de nuestros estándares de sostenibilidad ambiental, social y económica por todo el mundo y como herramienta de cooperación al desarrollo.

La protección del medio ambiente está en nuestro programa y quiero recordar la importancia que tiene nuestra voz en Europa. Las y los negacionistas del cambio

climático querrán acallar nuestras voces, pero nosotras y nosotros siempre miramos por nuestro entorno, porque es donde vivimos y es nuestro futuro. En este sentido, permitidme recordar que nosotras y nosotros estamos con los arrantzales, los baserritarras y los nekazaris, y por eso mismo somos conscientes de que los trabajadores y trabajadoras del primer sector son los primeros interesados e interesadas en la sostenibilidad; estamos con vosotras y vosotros, y haremos la transición verde de vuestra mano. El medioambiente nos preocupa, y su preservación tiene que estar en nuestras agendas políticas. Esta es la palabra del Partido Nacionalista Vasco.

Europa es sinónimo de democracia. Sinónimo de derechos. Y hoy también quiero hablar sobre igualdad. Sobre la igualdad real entre hombres y mujeres. Estos días en los que nos visitas desde fuera con la intención de darnos lecciones sobre feminismo, tenemos que recordar que aquí en Euskadi fuimos pioneras y pioneros en materia de igualdad.

Guk emakumeen ahalduntzerako lan egiten dugu. Genero-diskriminazioaren aurkako borroka babesten dugu. Horregatik lan egin dugu lan-ordainsarien berdintasunaren eta administrazio-kontseiluetako ordezkartzaren alde.

- Diskriminazioaren aurkako borroka babestuz
- Estatu kide eta hautagai guztiei genero-indarkeriari buruzko Istanbulgo Protokoloa sinatzeko eta berresteko betebeharra ezarriz
- Desberdintasuna elikatzen duten estereotipoak ezabatuz.

Guk argi daukagu. Erromako Ituna Europa osoan bete dadin lan egingo dugu, Euskadin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako euskal legearekin lan egiten dugun bezala!!! Aurrera egiten jarraitu behar dugu anitzasuna kontuan hartuta. Inor atzean utzi gabe. Gure ekonomiaren lehiakortasuna, justizia soziala eta elkartasuna dira desberdintasunak murrizteko, kalitatezko emplegu sortzeko eta gure eredu soziala indartzeko giltza. Hau da Euzko Alderdi Jeltzaileen eredu! Pertsonak dira gure alderdiaren funtsa, gure politiken fokua. Zuei entzunda ongizatearen alde lan egiten dugu, Euskadiren oparotasunaren alde. Eta Europan ere holan egiten dugu. Pertsonen ongizatea zaintza lan garrantzitsua da. Are gehiago krisi, pandemia, gerra eta abarreko gertaera latzen aurrean gaudenean.

Euzko Alderdi Jeltzaletik gogor lan egin dugu pertsonen alde. Baita osasun-arloan ere. Eta Europan, Izaskun Bilbaoren eskutik, baita ere:

- Osasun Datuen Europako Esparrua sortu dugu
- Arreta-sistemetan lankidetzan aritzeko Europako behatoki bat sustatuko dugu



Oihane  
Agirre Goitia  
Martinez

Guretzat osasuna lehentasuna da Bruselan. Bruselan ere gure osasunaren alde lan egin behar delako. Esparru politiko guzietan mugaz gaindiko lankidetza handiagoaren alde, neurri zehatzak hartu dira: Batasuneko koordinazioa hobetzea etorkizuneko osasun-mehatzuei aurre egiteko. Osasunaren Europa bultzatuko dugu! Iraunkorra, koordinatuagoa eta datuen kudeaketan oinarritzen dena. Neurri hauek aurrera ateratzeko lan egin dugu eta osasuna hobetzen jarraitzeko lan egiten dugu!

Eta hamaitzeko gure nortasunaz ere hitz egin behar da Europan. Gure euskal nortasuna indartu nahi dugu. Horregatik lanean jarraituko dugu euskara ofiziala izan dadin Europan. Euskara hizkuntza ofizial bat delako. Betidanik egin dugun moduan, lanean jarraituko dugu euskara ofiziala izan dadin Europan. Euskara batasunaren aniztasunaren parte delako. Horretarako, Europako hizkuntza gutxitu eta nazio tradizionalen taldea mantentzeko lan egingo dugu. Euskadiren ahotsa Europara eraman nahi dugu. Euskal ahots ozen bat. Ahots euskalduna. Eta euskaldunon kezkak eta beharrak Bruselan entzuteaz arduratuko dena.

Hemen da indar berria. Programarekin, proposamenekin, ideiekin. Betiko bizitasunarekin eta aurrekoen bultzadarekin. Zure ahotsa Europan egotea nahi baduzu, igandean bozkatu Euzko Alderdi Jeltzalea. Si quieres que tu voz se escuche alto y claro en Europa, el domingo, vota Partido Nacionalista Vasco. ¡Tu voz importa!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi askatuta!